

EUDELeK kudeaketa ekonomiko-finantzarioko prestakuntza eskaintza berria abiaraziko du HAEErekin batera, udaletako zuzendarientzat

- **Krisi ekonomikoko testuinguru batean, baliabide publikoen kudeaketa eraginkor eta iraunkorrak are garrantzi handiagoa hartzen du. Berritasun gisa, programa kudeaketa ekonomiko-finantzarioan espezializatuko da, hain zuzen ere, krisi ekonomikoaren testuinguruan.**
- **Biharko saioa, otsailaren 8an, ostirala, Rafael Jiménez Asensio aholkulari instituzionalarekin izango da. (09:00. EUDELen egoitza, Bilbao)**
- **EUDEL eta HAEE 2008az geroztik ari dira udal zuzendariei prestakuntza eskaintzen. Tokiko Zuzendaritza Publikoko ikastaroetatik 150 pertsona baino gehiago igaro dira.**

Bilbon, 2013ko otsailaren 7an. EUDELeK eta HAEEk 2013rako antolatu duten prestakuntza eskaintzaren barruan, berritasun gisa, Euskadiko udaletako zuzendarientzat prestatutako kudeaketa ekonomiko-finantzarioan espezializatutako programa abiaraziko da.

Programak zortzi saio ditu eta Bilbon (EUDEL-HAEE) eta Donostian (HAEE) dituen egoitzetan eskainiko da

Tokiko Zuzendaritza Publikoari buruzko ikastaroak EUDELen prestakuntza planaren parte dira 2008az geroztik, eta, bertatik, 150 pertsona baino gehiago igaro dira, plana abian jarri zenetik.

Gaur egungoa bezalako krisi ekonomikoko testuinguru batean, baliabide publikoen kudeaketa eraginkor eta iraunkorrak are garrantzi handiagoa hartzen du. Horregatik, EUDLEk egokitzen jo du udalen kontu-hartzaile eta beste sailetako zuzendarien gai ekonomiko-finantzarioen prestakuntza sendotzea. Programa hau, halaber, sareko topaketarako eta lanerako espazioa izango da, sektore honetako profesionalentzat.

Programa osatzen duten 8 saioetan, Estatuko araudi berriak (Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Legea) tokiko euskal gobernuei nola eragiten dien aztertuko da, bai eta udalak nola egokitu daitezkeen Lege berrira ere, aurrekontua, diruzaintza, kudeaketa finantzarioa eta diru-bilketa planifikatzen lagunduz.

Gaiak:

- Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Lege Organikoa eta bere aplikazioa Euskadiko udaletan.
- Udal Aurrekontua, udal politikaren tresna gisa.
- Kudeaketa Finantzarioa eta Diruzaintza.
- Zergen kudeaketa eta Zerga-bilketa.

Hitzaldia:

Programaren lehenengo saioa bihar, otsailaren 8an (ostirala), izango da, goizeko 9:00etan, Eudelen Bilboko egoitzan.

Tokiko politikan aditua den Rafael Jiménez Asensio aholkulari instituzionalak udal bateko kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren zuzendari batek edo arduradun batek dituen eskumenak aurkeztuko ditu.

***Rafa Jiménez. Doktorea Zuzenbidean, Euskal Herriko Unibertsitatean. Aholkulari instituzionala. Unibertsitateko irakaslea. Abokatua.**

Egitarau osoa

Programa Donostian ere eskaintzen da (EUDEL egoitza)

Lekua:

BILBAO: EUDEL-IVAP

DONOSTIA: IVAP

Otsailak 8, ostirala

“Udal bateko kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren zuzendari edo arduradun baten eskumenak”

Hizlaria: Rafael Jiménez Asensio.

Otsailak 22, ostirala

“Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Lege Organikoa eta bere aplikazioa Euskadiko udaletan, Kontzertu Ekonomikoaren testuinguruan”

Hizlaria: Carlos Urgoiti. Bilboko Udala

martxoak 8, ostirala

“Udal Aurrekontua, udal politikaren tresna gisa”

Hizlaria: Carlos Vivas. Bartzelonako Udala.

martxoak 22, ostirala

“Udal aurrekontuak eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioa”

Hizlaria: Jesús Albóniga. Bilboko Udala

apirilak 12, ostirala

“Zerga kudeaketa eta Zerga-bilketa”

Hizlaria: Alfredo Barrio. Vitoria-Gasteizko Udala

apirilak 26, ostirala

“Udal Kontu-hartzailetza. Kontrol ekonomiko-finantzarioa. Kontu-hartzailetzaren funtzioen birdefinizioa, aurrekontu-egonkortasunaren marko berrian eta tokiko erreforman”

Hizlaria: Jesús Albóniga. Bilboko Udala

maiatzak 10, ostirala

“Kudeaketa finantzarioa eta Diruzaintza. Zortzapen iraunkor baterantz”

Hizlaria: Oscar Villasante. Donostiako Udala.



: maiatzak 24, ostirala

“Eraginkortasuna udalen gastu publikoan”

Hizlaria: Iñaki Elzaudi. Prospektiker.